

AURKEZPENA

Lurra planetaren egungo egoera ez da ona. Berotze globala gertatzen ari da, gizakiak egindako ekintza kutsatuen ondorioz. Garraioek, fabrikek eta gailu elektronikoak erabiltzeko ezartzen ditugun energia instalazioak dira ondorio hauen adibideetako batzuk. CO2ko gero eta gas gehiago iristen dira atmosferara, eta lurrazal, aireko eta ozeanoetako tenperaturak gero eta altuagoak direla nabari da. Honek aurrera jarraitzea ekidin behar dela pentsatzen dugu, eta, horretarako, proiektu bat jarri nahi dugu abian.

Gu Eider, Amalur, Elene, Irati eta Udane gara, eta behin bakarrik erabili daitezkeen plastikozko poltsak birziklatuz, erabilera anitzeko plastikozko poltsak egitea erabaki dugu. Geroz eta gehiago kontzientziazten den gaia da munduko kutsadura; izan ere, gure planeta geroz eta kutsatuago dago eta egin dezakegun gauzarik okerrena gehiago hondatzen jarraitzea da. Beraz, gure helburua biztanleei egoeraren berri eman eta horretarako zein neurri hartu ditugun azaltzea izango da; kasu honetan, hainbat elikagairi ezartzen zaizkien kaxak murriztuz eta material birziklatuz egindako poltsen erabilera sustatuz. Gure ustez, proiektu hau aurrerapauso bat izan daiteke planetaren osasunean, eta, pixkanaka, kutsadura %1'2 jaitsiko da urtean, gure aurreikuspenen arabera. Egia da prozesua oso mantsoa izango dela, baina denon parte-hartzearekin gauzak askoz errazago egingo dira. Beraz, espero dugu gure proiektu hau erabilgarria izatea eta jendeak honi buruz hausnarketatxo bat egitea. Horregatik, gure enpresan murgildu eta informazio gehiago jasotzera animatzen zaituztegu!

